

“Gaur egun irakasle fatxaren alde nago duda izpirik gabe”

Markos Zapiain | Irun, 1963

Literatura kritikaria, filosofo kontenplalaria eta telebistako solaskidea. Bermeon bizi da eta bertako institutuan irakasten du. Hitzaldi ugari emandakoa: Larrabetzun, Londresen, Lazkaon...

FERMIN ETXEGOIEN
Argakia: Iñigo Azkona

Bermeora ailegatu eta herriko “talan” bizi izan zinen, antzinako “talaidxerua” legez: orduan bilakatu al zinen filosofo kontenplalaria?

Kontenplalaritza helburu zaila da, oraingoz urruna. Baina aspaldiko partez balea bat agertu da Harribolasean. Talatik ikusi dugu. Izaki handiak errazago kontenpla daitezke: balea, itsasoa, Rasputia.

Nire lagun batek zugatik ikusten du Kalaka...

Gutxi fio. Bekatu hilgarri mortala da banitatea.

Zure blog pertsonalean irakurria: “Gero eta piercing gehiago dabil euskal-alueta...”.

Ondorio filosofiko orokorrek aurretik zenbaketa lan zehatza eskatzen dute. Errealitatearen aurrean ez dugu zertan kikildu.

Nire lagun (zure jarraitzaile) horrek ez daki nor izan zen Hannah Arendt, ezta nik ere...

Filosofia ez da izan gizonena baino berriki arte. Hannah Arendt izan da Olinpoan dudarik gabe kokatu duten lehenbizikoa. Eta orduantxe aldarrikatu du “ni ez naiz filosofo”. Eskerrak Gursetik garaiz ihes egin zuen.

Geltokian dagoen etorkin galiziar batek galdetu du “Este tren é pra Irun...?” eta beste etorkin batek erantzun dio: “Pra ir un? Será pra ir todos!”.

Emigratu beharraren ondorioz galiziarrek oso sus-traiturik dute Bataren eta Guztiaren arteko harremanari buruzko kezka filosofiko-politiko zaharra. Gainera, txiroek, burua ez galtzeko, arazo existentziala txiste bilakatu behar izaten dute.

Nire beste lagun batek honela bataiatu zaitu ordea: Zapping-ain!

Gezurra! Hitz jolas merke hori luzitu ahal izateko egin didazu galdera! Zeren egia balitz, patxadaz egin ahalko nituzke erosketak Harrodsen. Baina izugarriak dira paparazziak. Ohituko gara pixkanaka.

Labartzari Agur nobela aztertuta idatzi duzu: “Txillardegigilearentzat, orain eta hemen, borroka armatuaren aldezea patologia legez ulertu behar da”. Aizu, engainaturik izan nau Txillardegik orain arte...

Zerorrek nahi baituzu engainaturik bizi! Txillardegigizasea eta Txillardegigizasea bereizirik ere, lehenbizikoa Aralarren dabil eta borroka armatuaren aurka idatzi du maiz. Eta autorearen azken eleberriko protagonista, borroka armatuaren aldekoa, burutik ez dabil ondo.

Agian Koldo Izagirre posmodernoa da zuretzat eta orain enteratzen naiz...

Ez dakit Izagirre posmodernoa ote den, baina egundoko idazlea behintzat bada. Bere-berea du egiaerakiko asmatu duen harreman tragikomikoa, *Sua nahi, Mr. Churchill?*eko protagonisten ihesaldi oztopatuak bezain gazi-geza. Kafkaren ziminoak ez zuen askatasuna nahi, baizik behar bezalako ihesaldi bat.

Egiazko posmodernoa Iban Zaldua da. Euskadi Saria jasotzerakoan honela bukatu zuen diskurtsoa: “gracias papá, gracias mamá...”.

Zehazki, “gracias papi, gracias mami” esanez burutu zuen hitzaldi gogoangarri hura.

Edonola ere, gurasoei esker ona adieraztea ez da posmodernoen monopolio. Eta zure galderen azpian sumatzen den “posmoderno” kontzeptuari betebetan egokituko litzaioke murtziar hura, samuraziberjolas bat eredu hartuta gurasoei lepoa katana batez ebaki ziena.

Zaren institutu-irakasle “desberdin” horrek... Poeta Hilan Kluba filma maite ala gorroto ote du?

Film hori demagogiko hutsa duzu. Gaur egun irakasle fatxaren alde nago duda izpirik gabe. Pedagogiari dagokionez, azken urteetako filmik onena Michel Gondryren *Human nature* iruditzen zait, Patricia Arquette eta Tim Robbins protagonista. ■